



23.korrika *æek* MUNDUAN

Bagarelako, herriak harro!

Geure mundua bide eta norabide bakarrekoa dela sinetsarazi nahi digute; batzuen eskubideak aldarrikatu nahi dituzte, eta besteonak zapaldu. Alabaina, guk badakigu hizkuntzak elkar ulertzeko sortu zirela, komunitateak eraikitzeko.

KORRIKA eta antzeko ekimenek komunitate baten parte sentiarazten gaituzte, herri baten partaide, euskaraz jakin zein ez euskararen aldeko jarrerak batzen gaituelako. Geure aniztasunean aurkitu dugu berdintzen gaituena: euskara*.

Uniformetasunetik urrun, herri askotarikoa eta zabala nahi dugu; munduan konplexurik gabe ibili, eta geure alea gehitu nahi dugu: geure ikuspegiaz, geure hitzez mundua aberastu.

Beraz, harro herriak, harro garenaz eta dugunaz! Mugi ditzagun herriak, ingurua mugiarazi arte. Bagarelako, eta herriak halaxe erabakita izango garelako.

Harro herri!

*euskara beharrean, jarri dagokion hizkuntzaren izena (glotonimoa)



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

korrika.eus



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra